

BÊÊÊLEAK

Beskoitzeko Ikastolako Berriak



Sar hitza

Beskoitzeko ikastolako burasoak gira. Kolektiboki, isilpetik zuengana gatoz, edizio hunen bidez, Herriko etxearekin dugun gatazkaren berri emateko. Gure ikastola 2013an sortua da 4 ikasleekin eta geroztik handituz doa. Gaur egun nahiz eta zailtasunak ukan, harro gira 51 ikaslerekin. Garapen huni aurre egiteko, duela zoinbat urtez geroz, Herriko etxeari adierazi diogu gure leku beharra.

Nahiz eta baiezkoa eman egiazko eraikuntza batendako (publikoki, zoinbat aldiz erran ondoren), 2 urtez geroz gure proiektu guztiek ezezkoa baizik ez dute ukan, hautetsien partez kontra proposamenik egin gabe. Azkenean, eraikuntzako baimen ofiziala otsailaren 23an pausatu dugu, **7 hilabete berantago errefusatua izanen dena.**

Instrukzio-epe horretan (otsaila-iraila), gure harremanaren sendotzera saiatu gira, eta elkarrizketa behin eta berriz sortu nahiz, proiektu eder hau, lorpen kolektibo bat izan dadin. Hainbat eta hainbatetan bezala atek hetsiak Herriko etxetik. Eta beti haurren kalterako.

Gure amore emaitak debalde izan dira. Orain publikoki Herriko etxeari galdegiten diogu, egiteko molde hauek gelditzeko eta epe laburrera soluzio baten proposatzeko.

Beskoitzar agurgarriak, gonbidatzen zaituztegu denbora pixka baten hartzerat idatzi hunen irakurtzeko eta zuen iritzia egiteko. Milesker !

35 familia gira, elkartuak, gure haurrer elkartasun, berdintasun eta partikatze balore batzu erakatsi nahian.

Beskoitzeko ikastolari gero iraunkor bat eman nahi diogu, gure haurrer eta pedagogia taldeari ikastolako baldintza onak eskaini nahi dizkiegu, gure lurraldearen ondarea partikatuz eta transmitituz.

Maite dugun eta haurrek ezagutzen duten herri huntan parte hartu nahi dugu ere, bere bizi sozial eta kulturean murgiltzen segituz.



IKASTOLAK

Estatuarekin kontratua duten elkarte eskolak dira, ikasleen gurasoen inplikazioari esker funtzionatzen dutenak.

Horrela, gurasoek orientabideak eztabaidatzen eta bozkatzen ahal dituzte beren haurraren ikastola kudeatzen duen elkartearen Biltzar Nagusietan.

Segituak diren programak Hezkuntza Nazionalarenak dira, gehienbat euskaraz eta murgiltze sisteman.

Frantsesa pixkanaka sartua da lehen hezkuntzaren bukaeran elebitasun orekatu batera heltzeko. Eskola programa ekitaldi ezberdinez aberastua da gure nortasuna ezagutzeko aukera emanez: kantuak, dantza, antzerkia, bertsoa (inprobisazio bersifikatua), euskal kirolak.

Gure helburua da gure ikasleengan beren balioen kontzientzia, tolerantziaren espiritua eta jakinmina garatzea.

Horrela, besteei buruz idekitzeko, beren aniztasunean onartuz..




Beskoitzeko Ikastola

Idatziezaguzue, zatozte gure ikustera!
bulegoa.beskoiteko.ikastola@gmail.com

KANTINA :

Murrizketa, kota, haurren errefusa...



Egoeraren elementuak : 54 haur, EZ bat gehiago

2021eko urtarrilean, kantinako haurren kopurua 42ra mugatzeko mehatxupean, Herriko etxeak inposatzen dauku 11.30tako zerbitzua. Ezinbestean, onartzerat bortxatuak gira, nahiz eta ber antolakuntza eta langile gastu handiak eragin gure ikastolari. Orain, **gure haurrek bakarrik** jaten dute, Beskoitzeko **beste eskoletakoek baino lehenago, kantina ¾ huts batean.**

2022ko uztailean, beste **kota** berri bat inposatua zaigu : 54 haur, ez bat gehiago.

2023ko urtarrilean : haur bat errefusatu kantinan

3 urteko haur bat errefusatu ondoan (ikastolako "55rena" **izanki**), Herriko etxeak gibelerat egiten du haur huni kantina onartuz baina ezagutzen ez dituen beste eskoletako haurrekin batera, (oraindik kargatuagoa den ondoko zerbitzuan) jan beharrez. Aho batez, **ikastolak eta haurraren burasoek onartezinezko eta ulertezinezko baldintza hauek errefusatu dituzte.** Erabaki dugu, haurraren onginahiarentzat, 11.30tan bazkalduko zela, bere 8.urteko ahizpa eta bere lagunekin batera, erdi hutsa den kantinan, ikastolako haurrer bakarrik « erreserbatua » delako.

"... Herriak 2923 biztanle ditu eta 4 eskola: 2 publiko eta 2 pribatu. Haur guztiak, publikoan edo pribatuan eskolatuak izanez geroz, aukera badute herriko kantinan jateko...." Eleak zenb°81, 2022ko 10/11/12

**3 haur errefusatuak kantinan
2023ko urtean zehar...**

« 55 » .aren BILA...

Gure erabakiak (Herriko etxeari adierazia), Herriko etxeko hautetsien bat bateko **erreakzio harrigarria eragiten du.** Urtarrilaren 6an, haietarik biek kontrola bat egiten dute gure kantina orduetan. **55. haurraren ondotik dabilta.** 4 egun berantago, **berriz, hiru hautetsik, haien burua aurkeztu eta agurtu gabe, haurrak galdezkatu dituzte, mahika kopuruetaz, eskas zirenetaz eta haien bizilekuaz eta galdeginez ere nun zen 55.a.** Haurra ez zen hor egun horietan, baina hor izan balitz, zer gertatuko zen ? **Haurren eskubideak errespetatuak izan ote dira ?** Zonbait haur ez badira trabatuak izan, beste batzuentzat, aldiz, egiazko trauma izan da.

2023ko urtarrilaren 23an, Herriko plazan biltzen gira egiteko molde hauen salatze eta Herriko etxeari galdegiteko bere erabakia ezeztatzea. Baina, hautetsiek haien ildotik segitzen dute. Orduan, irtenbiderik gabe gira, familia desolatua, Ikastola soluziorik gabe, haurñoa kantinarik gabe... Azkenean, bere burasoek amore emaiten dute, haien haurrak bereiziz eta gazteena Bardozeko ikastolan emanez. Guretzat, buraso gisa, galtze kolektibo bat da.

Bigarren haur bat errefusatu kantinan

2023ko otsailean haur berri bat sartzen da ikastolan. **Herriko kontseilua tematzen da eta ezeztatzen du bere izen emaita kantinan.** Bere ikaskide guziek elkarrekin bazkaltzen duten bitartean, bera, kantina "publikorik" gabe, ikastolan gelditzen da bere bazkariarekin.

2023ko agorrila : hirugarren haurra errefusatu

Maiatzean, Elizagoyen jaunak (1. laguntzailea), Cheverry-Paluat andrearekin batera, jakinarazi ziguten ikastolarentzat 54 haurren kotak iraunen duela. Ekainaren 8an, 2023-2024ko ikasturterako kopurua (adinka) jakinarazi genuen, hots, 53 haur. **Kexu izanik ere, orduan uste ukan dugu, aurten gure haur guztiak "jantegiko eskubidea" ukanen dutela .**

Hala ere, ondoko egunetan, Herriko etxeak muga berriak ezartzen dizkigu:

- Ikastolak ez du 22 ama-ikastola eta 32 1. mailako haurren heina gainditu behar.
- Lehen zerbitzuak "legezko eskola-adina (3 urteak eginik)" duten haurrak bakarrik onartuko ditu.

Horrela, sartze bezperan, eta beste urteetan ez bezala, Herriko etxeak 2 urte ½ ko haur baten izen emaitari ezetza emaiten du. Alta, haur hori ikasleen zerrendan zen, eta informatikoki ekainean kantinan bere izen emaita onartua izan zen. Herriko etxeak ez du, ez familiari, ez ikastolari, uztailearen 18an erabaki ezezkor horren berri eman. Iraileko lehen egunetan, haur hori ikastolan bakarrik gelditzen da jateko. Egunero negarrez egoten da, bere ahizparen zain, baldintza bakarra jan dezan. Hilabete bat berantago, azalpenik eman gabe, azkenean onartua izan da kantinan.

ERAIKITZEKO BAIMENA: "BAI, baina...." ASKI

Hamar urtez prefabrikatuetan izanki, herriari prezio ttipian alokatu baten ganean, Ikastolak instalazio berria eta iraunkorra behar du haurrak molde egokian errezibitzeko.

2018tik geroztik, herriko etxeak bere printzipiozko adostasuna eman zuen gaur egungo eremuan ikastola berriaren egiteko, errentamendu enfitoteiko baten bidez (alokairu horri esker, herriko etxea, epe luzera, errentamenduan eraikitako eraikinaren jabe bihur liteke) eta Seaskak (Ikastolen Federazioa) osoki finantzaturik. Gainera, publikoki behin baino gehiagotan baieztatzen du akordio hori.

*"...Herriko kontseiluaren gehiengoa ez da sekulan ikastolaren kontra izan. Gaur egun, egitura honek eraikin berria eraiki nahi du alokatzen duen herriko lursailan eta Herriko kontseiluak baieztatu iritzia adierazi du proiektu horrentzat alokatua den lursailan...".
Eleak zenb°81, 2022ko 10/11/12*

Orotara, 5 proiektu aurkeztuak izan dira. Proposamen bakoitzarentzat, herriko etxeak aldi guzietan ihardetsi du "bai... baina", dozierraren aurka eginez, trabak emendatuz, proposamenik inoiz egin gabe.

2022ko abenduan, hala eta guztiz ere, auzapezak dio "hautetsiak (...) Ikastolaren eraikitzekeo permisaren zain dira" (Eleak 81).

Ondorioz, herriko etxearen oharrak kontutan harturik, Seaskak eraikitzekeo galdea pausatzen du 2023ko otsailan.

Jakinez proiektuaren lorpena adostasun bide batetik pasatzen dela, Seaskak 6 hilabete baino gehiagotz herriko etxearekin elkartzeko eskaerak biderkatzen ditu. **Erantzunik ez.**

Eraikitzekeo baimenari uko egiteko erabili dituzten hiru argudioei buruz adieraztea erabaki dugu.

BAI... BAINAN 50 haur, EZ bat gehiago.

Herriko etxeak behartu nahi gaitu Ikastola 50 haurretan mugatzera, erranez "2017ko agorriaren 2ko gutun batean, 50 haur baino gehiago ez izateko konpromisoa hartu zuten Ikastolako arduradunek "(Eleak 81).

Alta, **duela 6 urte** jadanik Herriko etxeari igorria izan zen gutun horretan, ikastolak hau idatzi zuen: "Gure ikastola herriaren heineko kopuru batekin eraiki nahi dugu, 50 ikasle inguruko kopuruarekin egonkortuz".

Beraz, ez dugu sekulan konpromisorik hartu gure ikasleak kopuru zehatz batera mugatzeko.

Nolaz herriko etxe batek bere herriaren garapenaren alde lan egiten ahal du eta , aldi berean, eskola baten haurren kopurua mugatu?

2022 ko Otsailean

Urgentzian prefabrikatu baten pausatzea

2017tik **leku eskasa** sendi da ikastolan. Bost ikasgela beharrezkoak dira funtzionamendu normal batentzat. Alta bakarrik 4 ikasleko soilik ditugu eta lo egiteko gelarik ez. Hemen, zehaztu behar dugu, 50 ikasle balira ere, leku eskas bera litzatekela. **Leku eskasa izanik, Herriko gelak hastetik eta beti errefusaturik, gure haurretarik batzuek kanpoan aterpean kurtsoak egin dituzte, 2022ko neguan. Urgentziazko egoera huntan, Seaskarekin adosturik zerbaiten egitea erabaki dugu. Urbanismoko kodeko R 421-5 artikuluan bermatuz, prefabrikatu berri bat gehitu dugu (joan den ostailaren 8an), legeak dion bezala « momentuko leku eskasaren gainditzeko ». Holako soluzioak jadanik baliatuak izan dira Euskal herriko beste herri batzuetan, herriko etxeen babesarekin. **Gure haurren egoera ezagutzen genuelako, soluzio baten atxemaiteko betebeharrak morala genuen eta legalki eskubidea holako instalazio baten pausatzeko.****


BAI... Baina "ez 1 m² gehiago".

2023ko otsailaz geroztik, 603 m² inguruko lursail bat alokatu dugu aire hartze eremua handitzeko.

Beraz, lursail hori proiektuan sartua izan da.

Orain, prentsaren bidez, herriko kontseiluak dio "Herriko etxeak noizbait eskola publikoaren beharrentzat eskura lezakela" (Sud-Ouest 2023/10/22).

Zergatik herriko etxea interesatua liteke bazterreko lur zati txar hortaz, jakinez huni loturik, 14.000 m²-ko espazio handi eta ordokia dela eta preantatzen ahal lukela? (Ikus argazkia)



BAI... Baina ez duzu jabearen baimenik.

Baimen eskaerari erantzunez, Herriko etxeak ukatzeko arrazoiak zerrendatzen ditu. Arazo tekniko guziek konponbidea baldin badute (mahai baten inguruan eztabaidatuz gero), aipatutako lehen arrazoiatarik bat konponezina da oraindik. Herriko etxeak lur jabearen eraikuntzarako akordio gutuna eskatzen digu. Dena den, jabea herriko etxea da: Beraz, Herriko etxeak Seaskari berak egin behar duen, akordio gutun bat eskatzen dio.

Behin baino gehiagotan, beraz, Seaskak hitz orduak galdegiten dizkio herriko etxeari... herriko etxearen baimen gutun bat eskatzeko... herriko etxeari emateko !

Azkenean, Herriko etxeak ez du sekulan baimen dokumenturik eman Seaskari.

"Ayensa andereak herriko web orrian komunikatua 2023ko otsailaren 17an"

"Herriko kontseilu gehiengoak baiezkoa eman zuen alokatutako lursailaren mugak errespetatuko zituen eskola baten eraikitzeko baimenaren emateko. Ikastolako bulegoak ez du orain arte permisa baimenik pausatu."



Eraikitzeko permisaren ezezkoa 2023/09/18

"Kontuan harturik herriko etxea dela eraikitzeko permisaren oinarri den ondasunaren jabea, eta eskatzaileari (Seaska) ez diola ahalmena eman bertan hirigintza-eskaera aurkezteko".

BAI... bainan... EZ...

Borondaterik gabe, "bai baina..." zerrenda mugagabea izan daiteke, eta gure kontzesioak behin eta berriz eskasak... Ez da permisan zailtasun teknikorik hau ezezta dezakenik. Koeraikuntza nahi dugu eta elkarrizketarako prest gira irtenbide hobekoaren atxemateko.

Haurrei eskaini nahi dieguna :

- Eraikuntza iraunkorra haurren irakaskuntzarako baldintzen hobetzeko.
- Aire hartze egokia haurren jokoaren erretzeko.
- Proiektuan integratua den kantina, haur guztiek jateko eskubidea ukaiteko.

Herriko kontseiluak errefusatzeko duena : Eraikuntza, osoki Seaskak finantzatua, herria jabedun bilaka litaikena (900 000 euroko diru zama bozkatua Seaskatik Beskoitzeko ikastolarentzat).



MANIFESTALDIA 11/18an, 11etan Beskoitzen, zatozte gure sustengatzera